

txillardegiri

- **Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiri hil da 2012ko urtarrilaren 14an, 84 urterekin.** Baina gure artean gertu mantentzen da bere ondare aberatsaren bitartez, zenbait esparru ezberdinetan “bide berrien urratzailea” izan delako, urtarrilaren 15ean euskarazko egunkari Berrian esaten den bezala. Azken egunetan egunkari ezberdinetan eta interneten, edo euskarazko astekari Argian urtarrilaren 22an, baita urtarrilaren 29 igandean Donostiako Victoria Eugenia aretoan egin zaion omenaldian ere, adierazi zaigu nolako altxor anitza uzten digun, bere bizitza emankorra izan delako EUSKARArekin zerikusia duen edozein alorretan: hemen kokatzen zaigu, baita ere, *Txillardegiri* gure BAT Soziolinguistika Aldizkari honen historian.

Txillardegiri izan zen BAT aldizkariaren sortzailea 1989 urtean eta bere lehen zuzen-

daria 12 urtetan zehar (1989-2000). Laurogei urte betetzerakoan, 2009 urtean, zenbaki monografikoa egin genion bere omenez (71., 2009 (2)), interesgarria oso, aditu askok parte hartu zutelako, eta makina bat alderdi ezberdin landu zituztelako. Horrela ba, zenbaki monografiko berezi hau berrikustera bultzatzen zaituztegu. Bertan esaten nituen ideia gutxi batzuk bakarrik azpimarratuko ditut orain, gure BAT aldizkariaren orain arteko garrantziarekin lotzen direlako, *Txillardegiri* beraren hitzetan (31-32 or.):

- 1) “Bat-eginik ari gara; bat-eratu gaitzen... Hona hemen orain BAT aldizkaria, Euskararen aldeko mugimendu herritarra sendotzen eta bateratzera datorrena”;
- 2) “Euskal Herriaren hasieran EUSKARA zegoen Herriaren eratzaille; geroztik Eus-

TXILLARDEGI-ri esker ona!

Maria-Jose Azurmendi

UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitatea

ehu-azurmendi@telefonica.net

karak eman dio izena Herri honi; eta herriarron arteko ezberdintasun, gatazka, kontradizio eta guzti, Euskarak batzen gaituela aitortu ohi dugu sarritan...";

3) "Euskararen monopolizazioaren eta manipulazioaren kontrako protesta eginez abiatzen da BAT aldizkaria...";

4) "'Hizkuntza ez da gramatika bat: Deklinazioa, Aditza, Sintaxia, hiztunek osatzen duten Hizkuntza Komunitate bat baizik', idatzi berri du Iñaki Larrañagak. Edonolako komunitate bezala, bitariko dimentsioa du hizkuntzazkoak: barrurakoa eta kanporakoa. Barneko kidetasunean (elkartasunean) eta elkartearen bere buruarikiko berberatasunean mamitzen da lehenengoa; besteenganako berezitasunean baieztatzen da bigarrena...".

5) Euskararen erdigunerako Herri osoa-

ren bidegintza honetan bateratzeko deia zabaldu nahi du hasieratik bertatik BAT aldizkari honek...".

Ondoren, neroni izan nintzen BAT aldizkariaren bigarren zuzendaria 6 urtetan zehar (2001-2006), lan nekeza *Txillardegi* zure atzetik etorriz, baina baita oso ilusionagarria ere. Saiatu nintzen aldizkariaren tradizioa, bere indarra eta garrantzia sakontzen, adibidez honako alderdiak garatzen:

1) Aldizkariaren Batzordea anitzagoa eginez, euskal lurralde ezberdinen partaidetza bilduz, Nafarroakoa eta Iparraldekoaren bitartez, eta Batzordeari protagonismo handiagoa ematen;

2) Azpimarratze batzuk ere eginez, zenbaki bakoitzean gai nagusi bat monogra-

fikoki tratatzeko eta honez gain bestelako artikuluetarako GUREAN atala indartuz;

3) Hitzaurre Gisa atalean adierazten nituenak zenbaki bakoitzeko edukiak hobeto jasotzeko, laburtzeaz gain lotura errazteko edo ideia batzuk sakontzeko baliatuz;

4) Nazioarte mailan euskal soziolinguistikan kolaboratuz, esate baterako, *International Journal of the Sociology of Language* (IJSL), 174, 2005: "The Case of Basque: From the Past towards the Future" egin-dakoa, gero *The Case of Basque: Past, Present and Future* (2006) liburuarekin osatu genuena, biak Iñaki Maríñez de Luna-rekin batera argitaraturikoak.

2007-tik gerora BAT aldizkariak jarraitzen du, nahiz eta zuzendaririk ez izan, Belen koordinatzaileak bere gain zuzendaritza lanak neurri handian hartu dituelako, baita batzordekideek ere ardura handiagoarekin aritzen direlako. Gauza da egoera honetan beste zenbait berrikuntza garrantzitsu ere egin direla aldizkarian. Horien adibide dira honakoak: 1) HAUSNARTU-Euskal Soziolinguistika Sariak egitasmo interesgarria, aurten 2012an IV. ediziokoa argitaratuko dena; 2) Soziolinguistika Klusterrak antolatzen dituen Euskal Soziolinguistika Jardunaldi aberatsen ekarpenak argitaratzea, aurten V.a izango dena. 3) Soziolinguistika Klusterra beste erakunde batzuekin elkarlanean ere hasi da, eta

horren emaitzak erakusten dira BAT aldizkari honetan, adibidez:

- 1) Eusko Ikaskuntza erakundeak 2009an antolatutako XVII. Kongresuan *Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria* izeneko bi saio prestatu zituen, "Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria, Globalizazioan" eta "Euskal enpresen esperientziak hizkuntza kudeaketan, testuinguru globalizatu batean" izenekoak, bertan, sei komunikazio aurkeztuz, orain Eusko Ikaskuntzak argitaratuko dituenak. Saio bakoitzaren laburpenak BAT aldizkarian jaso dira (75., 2010 (2), 145-163).
- 2) Euskaltzaindiarekin batera zenbaki monografikoa egin eta argitaratu da *Diglosiaren inguruan* izenarekin (79/80, 2011 (2-3)). Bertan, Mikel Zalbidek idatziriko diglosiari buruzko txosten nagusia eta txostenaren inguruko zazpi adituen hausnarketak jasotzen dira.

Horrela ba, *Txillardegi*, zuk eta beste batzuek hasitako egitasmo hau aurrera doa indarrez ("BAT = askoen arteko batasuna"); euskararen inguruko egitasmoa indartzen doa, zuk eta guk nahi bezala, eta modu honetan gurekin jarraitzen duzula onartzen dugu. Gu ere sortzaile izaten jarraitzen dugu BAT aldizkarian, Euskararen soziolinguistikan sakonduz, pozez eta itxaropenez. Mila esker ba, *Txillardegi*, zure gidaritza eta laguntza iraunkorragatik. •